



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Nahia Lopez, Unai Garcia, Ixone Reyes eta Marta Estevez

Akelarreren kasuan, bezeroekiko harremana bereziki automatizatua izango da; izan ere, zerbitzua aplikazio batek eskainiko du eta jarduerak honen bitartez antolatuko dira. Horrez gain, bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua ere eskainiko dugu, eta komunitatean lan egingo dugu zenbait jardueretan ere modu fisikoan parte hartuz.

Hortaz, esan daiteke bezeroekiko harreman anitzak gauzatuko ditugula, automatizatua eta pertsonala bateratuz eta guztizko arreta bermatuz.

Kontuan hartuta aplikazioak eskainiko dituen jarduerak erabiltzaileek beraiek proposatutakoak izango direla, argi daukagu interesa guztiz mantenduko dutela eta modu natural eta egokian lotuta jarraituko dutela gure aplikazioari. Beraiek **Akelar** reren beharrezko zati aktiboa izanik, beraien ahotsak botere handia dutela sentituko dute eta zerbitzuan guztiz integratuta ikusiko dute beraien burua.